

## Merkeagoa da Garoña zabaltea ixtea baino



Garoiako zentral nuklearra.

NOLA ITXI TXERNOBYL? Nola itxi Fukushima? Bi zentral nuklear horiek istripuak jasan ondoren “bizirik” jarraitzen dute, eta inork ez du ixtea planteatzen. Lehena estali eta berrestali egin dute, eta hurrengo belaunaldiak egin dezaketen aurrerapen teknologikoen esku utzi dute soluzioa; bigarrena erradioaktibitatea isuri eta isuri ari den bitartean zientzialariek, nahiz eta hasieran eraistez hitz egin zuten, gero eta garbiago dute estaltzera eta behar den aldi orotan berrestaltzera jo beharko dutela.

Zentralen guneak aktibatzeke moduak ezagunak ditugu, baina desaktibatzeke bideak ez. Esan dezakegu zentralak aktibatu ondoren bizitza ia infinitua ematen diegula.

Garoña ez da salbuespena. Zentrala gelditu zuten, baina ez itzali; ez baitakite nola. Azken bi urteotan Garoñaren inguruan gertatzen ari direnak gero eta garbiago azaltzen du ezintasun teknikoa. Europak agindutako segurtasun neurriak ezarriz gero zentralak errentagarri izateari utziko lioke; Nuclenorrek, zentralaren jabeak, badaki ireki ondoren gutxienez hamar urtez funtzionatu beharko lukeela segurtasunean egin beharreko inbertsioa amortizatzeke. Badaki, halaber, zentrala geldituz gero itxiera kostuari ez ezik arazo ekosozial handiei aurre egin beharko liekeela. Badirudi Espainiako Gobernuak ere arazoa ulertu duela, eta behingoz konturatu da askoz ere errentagarriago zaiola zentralak *sine die* irekita mantentzea. Hala, erraz ulertzekeoak dira azken asteetan zentral nuklearren bizitzaren luzapenez izan diren berriak. ■



Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



www.iametza.com  
T.943 37 67 16

### Azukrez dabilzan bateriak

Virginiako Institutu Politekniko eta Unibertsitateko ikertalde batek azukrez dabilen bateria sortu du. Bateria berriak energia metatzeko gaitasun handia du, eta birkargatzeko modukoa eta biodegradagarria da. Hortaz, baliteke etorkizunean ohiko baterien ordezeko bihurtzea.

ttiki.com/60647  
(Euskaraz)

### Zelulosazko nanokristalak

Zuhaitzek zelulosazko nanokristalei zor dizkiete erresistentzia eta zurruntasuna. AEBetako Purdue Unibertsitateko ikertzailen ustez, material hori eraikuntzan eta automobilgintzan erabil daiteke, altzairua bezain zurrundela konturatu dira eta. Gainera, biodegradagarria da, eta nahiko erraz eta merke lor daiteke, hondakin ugarienetakoa baita papergintzaren industrian.

ttiki.com/60648  
(Gaztelaniaz)

### Leiho adimentsuak energia aurrezteko

Etxeetako leihoak oso garrantzitsuak dira berokuntza sistema erregulatzeko. Berriki, hiru fabrikatzaile europarrek, elkarrekin egindako ikerketa baten ostean, energi kontsumoa %20 hobetu dezakeen leiho sistema iragarri dute.

ttiki.com/60649  
(Gaztelaniaz)